

Euskal AEko esportazioen kopuruak % 9,1 egin du behera 2023ko apirilean

Urteko lehen lau hiletako metatuak % 13,2ko igoera izan du esportazioetan eta % 5,3koa inportazioetan

Euskal AEko ondasunen esportazioek (2.419 milioi euro) % 9,1 egin dute atzera 2023ko apirilean, aurreko urteko hila bete beraren aldean. Bilakaera hori izan dute bai produktu energetikoek (–% 46,4) bai produktu ez-energetikoek (–% 6,5). Datu horiekin, 2023. urteko lehen lauhilekoko balantzearen itxieran esportazioen hazkuntza % 13,2koa izan da.

Inportazio-fluxuak (2.238 milioi) ere % 9,7 egin du behera, eta hura inportazio energetikoetan eta ez-energetikoetan ikusi da (–% 15,3 eta –% 7,1, hurrenez hurren). Hala ere, pisu-tonatan, inportazio ez-energetikoek soilik egin dute behera (–% 3,7); izan ere, energetikoek % 34,9 egin dute gora, 2022ko apirilean 1.013 milioi baitziren eta 2023ko apirilean, 1.366. Urteko lehen lau hiletako balantzeak inportazioen % 5,3ko hazkuntza izan du.

Hilabete honetan, 180,7 milioi euroko merkataritza-saldo positiboa izan da, eta % 108,1eko estaldura-tasa; hori guztia, balio nominaletan neurtuta.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Apirila 2023

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Apirila			Apirila		
	2022	2023	Gehikuntza (%)	2022	2023	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.660.676	2.419.037	-9,1	2.479.873	2.238.298	-9,7
ENERGIAZKO GAIK	173.029	92.660	-46,4	799.462	677.368	-15,3
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	2.487.647	2.326.377	-6,5	1.680.411	1.560.930	-7,1
URTEKO METATUA	10.052.025	11.375.329	13,2	8.892.621	9.365.980	5,3
ENERGIAZKO GAIK	753.952	596.770	-20,8	2.232.349	2.376.969	6,5
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	9.298.073	10.778.559	15,9	6.660.272	6.989.011	4,9
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	770.523	771.981	0,2	454.724	494.080	8,7
URTEKO METATUA	2.944.989	3.630.923	23,3	1.877.057	2.093.832	11,5
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	1.000.726	884.992	-11,6	1.579.041	1.325.930	-16,0
URTEKO METATUA	4.047.992	4.292.307	6,0	5.200.707	5.479.200	5,4
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	889.428	762.064	-14,3	446.109	418.289	-6,2
URTEKO METATUA	3.059.044	3.452.099	12,8	1.814.857	1.792.948	-1,2

Data 2023ko Ekainaren 15a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaian, esportazioen jaitsiera % 11,6koa izan da eta Gipuzkoan, % 14,3koa; Araban, berriz, igoera txiki bat izan du, % 0,2koa.

Hilabete honetan, Arabatik igorritako ondasunen erdiak baino gehiago *“Garraio-materialak”* izan dira (% 53,1), nahiz eta jaitsiera txikia izan duen, % 1,4koa, urte artean (410 milioi esportatu). Era berean, jaitsi egin dira beste arantzel-sekzio batzuk, besteak beste, *“Metalak eta bere manufakturak”* (–% 4,6) eta *“Produktu kimikoak”* (–% 24,9).

Bizkaian, jaitsiera izan da *“Produktu mineral eta energetikoen”* esportazioetan (–% 45,7), aurreko urteko hil berean baino 79 milioi gutxiagorekin, bai eta *“Metalak eta bere manufakturak”* (–% 13,4) eta *“Produktu kimikoak”* (–% 24,8) sekzioen esportazioetan ere. Gora egin dute, berriz, *“Koipe eta olio”*en salmentek (% 113,0).

Gipuzkoan, *“Metalak eta bere manufakturak”* % 30,8 jaitsi dira, *“Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak”* % 16,5, *“Papera eta bere manufakturak”* % 10 eta *“Produktu kimikoak”* % 22,2.

Jatorri-helmugako herrialdeak, 2023ko apirila

2023ko apirilean, bost herrialdek (Alemania, Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Italia) eratu dute Euskal AERen bezero nagusien taldea; esportatutako guztizkoaren % 51,2 hartu dute (1.238 milioi). Haietako hiru EB27koak dira; entitate horri % 63,5 dagokio.

Alemaniarra eginiko **esportazioek** hilabete honetan gora egin dute eta 378 milioi eurokoak izan dira, eta, besteak beste, honako hauek nagusitu dira: *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (89 milioi), *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (67,3 milioi) eta *“Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak”* (33,9 milioi). Guztira, 400 produktu-mota izan dira.

Frantziara 673 produktu-mota bideratzen dira, guztira 364 milioi euro, eta, haien artean, honako hauek nabarmentzen dira: *“Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak”* (28,3 milioi) eta *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (25,9 milioi).

Estatu Batuak daude, 179 milioirekin, hirugarren posizioan; kasu horretan, esportazioak honako hauetan zentratzen dira: *“Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak”* (29,1 milioi), *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (19,4 milioi) eta *“Biodiesela eta haren nahasteak”* (14 milioi) eta 345 produktu desberdin.

Erresuma Batuak Euskal AEko esportazioen guztizkoaren 176 milioi biltzen ditu; haietatik, 17,2 *“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilei”* dagokie, 10,8 milioi *“Kautxuzko pneumatiko berriei”*, 10,4 milioi *“Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne”* produktuari, 9,4 milioi *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilen”* eta 9 milioi *“Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak”*.

Italiara 141 milioi euroan esportatzen dira, eta hil honetan eginiko transakzioetan honako hauek nagusitu dira: *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (10,6 milioi), *“Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsauearako”* (8,6 milioi) eta *“Ibilgailuen zati eta osagarriak”* (7,4 milioi).

Errusiara eginiko esportazioek % 69,3 egin dute behera, 11,7 milioitik 3,6ra. Esportazio horiek, funtsean, honako hauei dagozkie: *“Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak”* (1,7 milioi euro) eta *“Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak”* (0,6 milioi); guztira, esportatutako 19 produktu-mota.

Gure **inportazioen** % 47,6, hilabete honetan, EB27tik etorri da. Herrialde esanguratsuenen artean, Alemaniatik inportatutakoa (306 milioi) nabarmentzen da; funtsean, *“Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak”* (33,1 milioi) eta *“Enboto, diesel edo erdi-diesel motorrei”* dagokie (32,1 milioi). Era berean, Frantzia nabarmentzen da, 181 milioirekin; kasu horretan, *“Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra”* produktua dago, 28,6 milioirekin, lehen posizioan, eta, guztira, 679 produktu-mota; hala, herrialde horretatik inportatutako ondasunen heterogeneotasun handia adierazten da. Mexiko hirugarren posizioan dago, 164 milioi euroekin; haietatik, 159 *“Petrolioaren olio gordinak”* dira. Txinatik 160 milioi inportatu dira, eta *“Akumulagailu elektrikoak eta bere zatiak”* nabarmentzen dira, 29,3 milioirekin. Herbehereak, 150 milioirekin, hilabete honetan, inportazio-foku garrantzitsua dira, batik bat *“Olioena”*, dela *“Petrolioaren olio finduena”* (29,7 milioi), dela *“Tenperatura altuko harriak mundrunen destilazioaren olio eta produktuena: benzol, toluol, xilol, naftaleno, fenol, etab.”* (33,4 milioi), dela *“Palma-olioarena”* (16,8 milioi).

Errusiaren kasuan, % 173,7ko igoera izan da, 2022ko apirilean 28,9 milioi izan baitziren eta, 2023ko hilabete berean, 79 milioi; funtsean, *“Petrolio-gasari eta gainerako hidrokarburo gaseosoei”* (73,1 milioi) eta *“Landu gabeko aluminioari”* (1,9 milioi) dagokie.

Inportazio energetikoak, hilabete honetan, honela banatuta daude: 277 milioi Amerikakoak (% 40,9) eta, haietatik, 159 Mexikokoak, 89 Estatu Batuetakoak eta 29 Kanadakoak. 196 milioi Europakoak (% 28,9) eta, haietatik, 73 milioi Errusiakoak, 63 milioi Herbehereetakoak eta 57 milioi Norvegiakoak; 119 milioi Afrikakoak (% 17,6) eta, haietatik, 73 milioi Angolakoak eta 46 milioi Nigeriakoak; 86 milioi Asiakoak (% 12,6) eta, haietatik, 68 Kuwaitekoak eta 17 Indiakoak.

Merkaturatutako produktuak, 2023ko apirila

Xehetasunak ikusteko, 2023ko apirilean ikusten da hamar **arantzel-partida** nagusiek esportazioen % 39,8 kontzentratu dutela; baterako balioa 963,4 milioi eurokoa izan da.

Produktu-multzo horretan, honako hauek nabarmentzen dira: *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (% 5,4ko urte arteko aldakuntza-tasa), 207,2 milioi esportaturekin, aurreko urteko hilabete berean baino 10,6 milioi gehiago; *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (% 15,1 eta 114,3 milioi) eta *“Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak”* (% 38,6 eta 71,3 milioi). Analisiaren esparrua esportazio-rankingeko lehen 25 posizioetara zabaltzen badugu, hazkuntza-tasa handiak ikusiko ditugu honako partida hauetan, besteak beste: *“Transformadore elektrikoak, bihurtzailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina”* (24,3 milioi) eta *“Animalien edo landareen koipeak eta olioak, erabilera tekniko industrialetara bideratuak”* (23,3 milioi). Bestalde, adierazi behar da jaitziera nabarmena izan dela honako hauen salmentetan: *“Petrolioaren olio finduak”* (–% 57,8), *“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”* (–% 34,5), *“Burdinazko edo altzairuzko manufakturak”* (–% 23,2) eta, era berean, baina neurri txikiagoan, *“Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak”* (–% 3,4 eta 172 milioi) eta *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (–% 0,8 eta 148,3 milioi).

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Apirila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.660.676	2.419.037	100,0	-9,1
10 pertsona baino gubxiagoko turismoak	196.623	207.247	8,6	5,4
Automobilentzako zati eta osagarriak	178.408	172.279	7,1	-3,4
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	149.542	148.287	6,1	-0,8
Kaubuzko pneumatiko berriak	99.255	114.278	4,7	15,1
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	51.438	71.273	2,9	38,6
Petrolioaren olio finduak	162.112	68.374	2,8	-57,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	81.507	53.367	2,2	-34,5
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatueterako	58.208	50.000	2,1	-14,1
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	50.395	44.064	1,8	-12,6
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	44.576	34.228	1,4	-23,2
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	29.223	30.213	1,2	3,4
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	36.001	29.538	1,2	-18,0
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	28.207	28.627	1,2	1,5
Xaflen bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	24.523	25.874	1,1	5,5
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	14.071	24.324	1,0	72,9
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak	41.718	23.657	1,0	-43,3
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	10.607	23.304	1,0	119,7
Turboreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	15.408	21.140	0,9	37,2
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	28.556	20.406	0,8	-28,5
Material-abio bidez metala zulatu, eskariatu, fresatu edo haritzatzeko makina-erremintak, tornuak izan ezik	16.678	20.046	0,8	20,2
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	16.060	19.897	0,8	23,9
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	22.333	19.048	0,8	-14,7
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	24.077	18.814	0,8	-21,9
Makina erremintetarako parteak eta osagarriak	11.122	18.367	0,8	65,1
Ardoa, mahats freskoarena	17.700	17.522	0,7	-1,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Ekainaren 15a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, arantzel-partidetan, garrantzitsuenak, “*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak*” partidak (guztizkoaren % 15,8), % 44,8 egin du behera, 2022ko hilabete berean baino 286,6 milioi gutxiagorekin eta 352,6 milioiko guztizko erosketekin. Jaitsiera hau % 15,6koa baino ez da izan, erkaketa tonatan eginez gero; izan ere, 2022ko apirilean 861.945 tona inportatu ziren eta, 2023ko hilabete berean, 727.570. Bestalde, nabarmen hazi dira honako hauen inportazioak: “*Petrolioaren olio finduak*” (% 513,1), haietatik 118 milioi inportatu baitira, funtsean gasolioa eta fuela; “*Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoa*” (% 16,7 eta 164 milioi) eta “*Tenperatura altuko harriak mundrunen destilazioaren olio eta produktuak: benzol, toluol, xilol, naftaleno, fenol, etab.*”. Era berean, hazkuntza nabarmenak izan dituzte honako hauek: “*Akumulagailu elektrikoak eta bere zatiak*” (% 62,8), “*Garraiatzeko edo ontziratze beirazko ontziak*” (% 319,1) eta “*Zereal eta leguminosen ehoketaren birrinak eta hondarrak*” (13,9 milioi inportatu).

ARABA. Esportazioak 2023ko apirilean

Araban, esportazioak % 0,2 hazi dira, honako hauetan oinarrituta: “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (% 4,7 egin dute gora eta, guztira, 203,7 milioi esportatu), “Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak” (% 50,0 eta 64,3 milioi), “Kautxuzko pneumatiko berriak” (% 37,5 eta 46,8 milioi esportatu) eta “Garraiatzeko edo ontziratzeke beirazko ontziak” (% 357,6 eta 7,7 milioi).

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Apirila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	770.523	771.981	100,0	0,2
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	194.534	203.653	26,4	4,7
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	149.485	147.671	19,1	-1,2
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	42.856	64.269	8,3	50,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	34.040	46.790	6,1	37,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	53.683	37.425	4,8	-30,3
Ardoa, mahats freskoarena	15.682	15.765	2,0	0,5
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	19.630	13.524	1,8	-31,1
Metal arruntezko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	17.905	9.438	1,2	-47,3
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	5.154	8.580	1,1	66,5
Garraiatzeko edo ontziratzeke beirazko ontziak	1.691	7.740	1,0	357,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Ekainaren 15a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2023ko apirilean

Bizkaiko lurralde historikotik egin diren esportazioek % 11,6 egin dute behera. “Petrolioaren olio finduak” (–% 59,5 eta 64,5 milioi) izan da tradizioan Bizkaiko esportazio-rankingeant egon den lehen partida, eta, hilabete honetan, “Kautxuzko pneumatiko berriak” partidak gaintu du (% 2,9 eta 66,5 milioi). Gora egin dute honako hauen esportazioek: “Animalien edo landareen koipeak eta olioak, erabilera tekniko industrialetara bideratuak” (% 119,7 eta 23,3 milioi), “Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne” (% 38,7) eta “Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina” (% 68,3).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Apirila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.000.726	884.992	100,0	-11,6
Kautxuzko pneumatiko berriak	64.632	66.534	7,5	2,9
Petrolioaren olio finduak	159.318	64.514	7,3	-59,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	64.541	63.135	7,1	-2,2
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	33.379	28.236	3,2	-15,4
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	10.607	23.304	2,6	119,7
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	23.382	21.336	2,4	-8,7
Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	12.534	21.097	2,4	68,3
Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	15.140	21.006	2,4	38,7
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	33.108	18.168	2,1	-45,1
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	17.052	17.981	2,0	5,4

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Ekainaren 15a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2023ko apirilean

Gipuzkoako esportazioek % 14,3 egin dute behera, eta partida nagusietan, honako hauek izan dituzten jaitsierak nabarmentzen dira: “Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak” (–% 36,4), “Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak” (–% 35,5), “Burdinazko edo altzairuzko gainerako manufakturak” (–% 35,3) eta “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako” (–% 14,1). Hazkuntza esanguratsuen “Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak” partidarena izan da (% 19,2 eta 71,7 milioi esportatu).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Apirila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	889.428	762.064	100,0	-14,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	60.184	71.719	9,4	19,2
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	58.208	50.000	6,6	-14,1
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	78.509	49.898	6,5	-36,4
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	35.934	31.794	4,2	-11,5
Material-abio bidez metala zulatu, eskariatu, fresatu edo harizatzenko makina-erremintak, tornuak izan ezlik	16.222	19.649	2,6	21,1
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	25.206	16.319	2,1	-35,3
Ontziak eta paketatzenko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzenko makinak	14.146	14.149	1,9	0,0
Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	16.560	13.755	1,8	-16,9
Makina erremintatzenko parteak eta osagarriak	6.797	13.629	1,8	100,5
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	19.987	12.899	1,7	-35,5

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Ekainaren 15a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Urteko lehen lauhilekoan, esportazioak % 13,2 hazi dira, eta inportazioak, % 5,3; superabita 2.000 milioi eurora iritsi da


2023ko lehen lau hilotan, Euskal AEko **esportazioek** % 13,2ko urte arteko igoera izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean; alegia, 1.323,3 milioi euro gehiago. Aldi horretan, zenbateko esportatzailea 11.375,3 milioikoa izan da, eta kopuru horri Bizkaiak egin dio ekarpenik handiena, 4.292 milioikoa (guztizkoaren % 37,7), gero Arabak (3.630,9 milioi) eta, ondoren, Gipuzkoak (3.452 milioi).

Arabako esportazioek urte arteko hazkuntzarik handiena izan dute (% 23,3), 2022an baino 686 milioi gehiago. Gipuzkoan, hazkuntza % 12,8koa izan da (393 milioi gehiago) eta, Bizkaian, % 6koa (244,3 milioi gehiago).

Esportatutako produktu-mota kontuan hartuta, “Produktu energetikoen” esportazioetan jaitsiera izan dela ikusten da (–% 20,8), aurreko urteko lauhileko berean baino 157,2 milioi gutxiagorekin. “Produktu ez-energetikoen”, berriz, % 15,9ko igoera izan da, eta 1.480,5 milioi baino gehiago 2022ko aldi bereko metatuan.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Argibide gehiagorako, sartu [Elkano](#) kanpo-merkataritzaren datuak kontsultatzeko aplikaziora.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62